

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zaborrontziaren azalerako diseinua margotzeko, 25 urtetik beherakoentzako lehiaketa bat egingo dugu. Honako hauek parte hartu ahal izango dute: Euskal Herriko Unibertsitateko "Arte Ederrak" graduaren ikasleek eta Batxilergo artistikoko ikasleek (Artaza-Erromokoek, Ibarrekolandakoek etab.)

Parte hartzaileek diseinua irudikatuko dute eta irabazlearen diseinua jarriko dugu zaborrontzian. Gainera, irabazleak 150€-ko diru-saria irabaziko ditu.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin hitz egingo dugu. Gure helburua, haiek institutu eta eskola publikoetan gure konpostontziak erabiltzea izango da, gure enpresa kontratatzea, alegia. Itunpeko eskoletan, zuzenean Zuzendaritzarekin kontaktuan jarriko gara. Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa izango da.

Gainera, produktuaren prezioa gainerako antzeko produktuak baino merkeagoa izango denez, dirua aurrezteko aukera emango diegu Eusko Jaurlaritzako Osasun-eta Hezkuntza Sailei.

